

**HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA**  
**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua**  
Ikasturtea: 2020-2021

**ARROTXAPEA KIROL KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN GOGOBEKETZE,  
KALITATE ETA HAUTEMANDAKO BALIOAREN AZTERKETA.**

EGILEA: Garazi Zubieta Platero

ZUZENDARIA: Aduna Badiola Lekue

Data, 2021eko maiatzaren 19a

## AURKIBIDEA

LABURPENA.....	4
1. SARRERA.....	6
2. TESTUINGURUA .....	6
2.1 Kirol klubak .....	6
2.2 Kalitatea.....	7
2.3 Hautemandako balioa. ....	8
2.4 Gogobetetasuna.....	9
2.5 Kalitatea, hautemandako balioa eta gogobetetasunaren arteko erlazioa. ....	10
2.6 Kalitate sistemak. ....	10
2.7 Gogobetetasuna neurtzeko tresnak.....	11
2.8 EPOD2.....	13
3. HELBURUAK.....	14
4. METODOA .....	14
4.1 Parte hartzaileak .....	14
5.1 Tresna.....	15
5.2 Prozedura.....	15
5.3 Datuen analisia.....	16
6. EMAITZAK.....	17
6.1 Dimentsioen analisia. ....	18
6.2 Azpi-dimentsioen analisia. ....	19
6.2.1 Azpi dimentsioak sekzioen arabera .....	19
6.2.2 Azpi dimentsioak interes taldeen arabera.....	23
6.2.3 Azpi dimentsioak bazkideztaren arabera.....	26
7. EZTABAIDA .....	27
8. ONDORIOAK .....	29
9. ERREFERENTZIAK.....	30
10. ERANSKINAK.....	34
1. Eranskina: Tresna.....	34
2. Eranskina: Onespen dokumentua.....	46

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa: Laginaren profila.....	14
2. Grafikoa: Dimentsioen azterketa.....	19

## IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: Bezeroen fidelizazioaren lotura.....	12
---	----

## TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Datu orokorrak lagin osoaren arabera.....	17
2. Taula: Dimentsioen totala lagin osoaren arabera.....	18
3. Taula: Azpi dimentsioen totalak lagin osoaren arabera.....	19
4. Taula: Azpi-dimentsioak sekzioen arabera.....	20
5. Taula: Azpi-dimentsioak interes taldeen arabera.....	24
6. Taula: Azpi dimentsioak bazkidetzaren arabera.....	26

## LABURPENA

Kirol erakundeek azken urteetan gero eta gehiago hartzen ari dute kudeaketa on baten ardura, baita horren ebaluazioa egiteko beharra, zeinetan erdigunea bezeroa den. Lan honen helburua, Arrotxapea K.K.E. kirol klubaren bezeroek horrekiko duten pertzepzioa, asebetetzea eta kalitatea ezagutzea da.

Hau aurrera eramateko jarduera gidatuetan parte hartzen duten bezeroei bideratua dagoen EPOD 2 galdetegia erabili da. Galdetegia 98 pertsonen erantzun zuten eta honen bidez lortutako datuak SPSS 15 programa informatikoaren bidez aztertu dira. Lehenik, lagin osoa harturik item bakoitzaren batz bestekoa eta honen desbideratze estandarra atera dira. Bigarrenik, honakoan ere lagin osoa harturik datuak hiru dimentsioen (kalitatea, hautemandako balioa eta gogobetetasuna) arabera aztertu dira bakoitzaren batz bestekoa eta desbideratze estandarra aztertuz. Hirugarren eta azkenik, azpi dimentsioen arabera (entrenatzaileak, instalazioak, materiala, jarduerak, komunikazioa, erakundeko langileak, gogobetetasuna eta adostasuna) miatu dira datuak, bai modu orokorrean, baita aldagai ezberdinak kontuan hartuta ere: sekzioak, interes taldeak eta bazkietza.

Ikerketa honen emaitzei dagokionez, hobekien baloratutako azpi-dimentsioak jarduerak, entrenatzaileak eta komunikazioa izan dira. Hauetatik, balorazio altuena jarduerak azpi-dimentsioak jaso du. Bestalde, balorazio txarrena jaso dutenen artean gogobetetasuna, instalazioak eta materiala daude. Honakoetan, balore baxuena gogobetetasunari dagokio.

Ondorioztatu daiteke jasotako Arrotxapea K.K.E.-ko bezeroen pertzepzioa positiboa dela, baina komeni izango litzateke ikerketa errepikatzea lagin esanguratsua batekin.

**Hitz gakoak:** Epod2, Kalitatea, Hautemandako balioa, gogobetetasuna, kirol kluba.

## ABSTRACT

In recent years, sports organizations have become increasingly responsible for good management, as well as the need of its evaluation, which is designed around the customer. The aim of this work is determining the perception, satisfaction and quality of Rochapea K.K.E. sports club's customers.

An EPOD 2 questionnaire aimed at customers participating in guided activities was used to carry the study. The questionnaire was answered by 98 people and the data obtained was analysed through the computer program SPSS 15. First, the average of each item and its standard deviation were taken from the whole sample. Second, also taking the whole sample, the data was analysed according to the three dimensions (quality, perceived value, and satisfaction) by studying the mean and standard deviation of each. Third and finally, the sub-dimensions (coaches, facilities, material, activities, communication, organizational staff, satisfaction and consensus) were surveyed, both, in general and in terms of different variables: sections, interest groups and membership.

In terms of the results of the study, the best-rated sub-dimensions were activities, coaching, and communication, where the highest rating was received by the activities. On the other hand, the worst rating was received by satisfaction, facilities and material, being satisfaction the lowest value of all.

It can be concluded that the perception received by customers of Rochapea K.K.E. is positive, but it would be advisable to repeat the research with a more significant sample.

**Keywords:** Epod2, Quality, Perceived Value, Satisfaction, Sports Club.

## 1. SARRERA

Aurkezten den lana, Arrotxapea K.K.E (Arrotxapea Kirol eta Kultur Elkarte), kirol klubaren bezeroen pertzepzioaren analisi bat da. Lan hau aurrera eramateko bi arrazoi nagusi zehazten dira. Lehendabiziko arrazoa klubarekiko gertutasuna da, zeinak informazioa eta beharrezko baimenak erraztasunez lortzea bideratuko duen. Bigarren arrazoa, lehenengoarekin erlazioa badu baina sentiberagoa da. 10 urte daramatzat klub honen parte izaten gimnasia erritmiko sekzioaren entrenatzaile bezala eta lehendabiziko pertsonan bizi izan dut klubak jasan duen gainbehera. Ikasketetan aurrera egiten nuen bitartean kontzientego nintzen klubak geroz eta kudeaketa okerragoa egiten zuela, baita geroz eta giro apalagoa zegoela bertan. Izan ere azken urteetan zehar bazkide asko galdu ditu, ixteko zorian egotera eraman duena. Oso argi neukan erabilgarritasun bat eman nahi niola lanari eta motibatzen ninduen zerbait izan behar zuela. Hori da ba bigarren arrazoa, lan honen bidez, klubari aurrera egiten laguntzeko aukera ikusten da, bezeroen pertzepzioa ezagutuz zein diren hobetu behareko alderdiak aurre ikusteko aukera ematen duelarik.

## 2. TESTUINGURUA

Kirol klub baten bezeroek daukaten gogobetetasuna, hautemandako balioa eta kalitatearen pertzepzioa aztertu ahal izateko beharrezkoa da ezagutzea zein den horretarako erabiliko den tresna eta zergatik izan den hautatua, baita ere, beharrezkoa ikusten da kirol kluba eta lana bera jardungo den alorra testuinguratzea, honen ostean azalduko den azterketa ulertu ahal izateko. Beraz, ulergarritasun hori ziurtatu ahal izateko jarraian kirol klubak, kalitatea, hautemandako balioa, kalitatea eta hauen arteko harremana azalduko dira. Ondoren EPOD2 erabiliko den tresnaren hautaketa justifikatu ahal izateko.

### 2.1 Kirol klubak

Lan honetan zehar kirol klubak izango dira aztergai, 10/1990ko Kirol legeak (Gobierno de España, 1990) honela definitzen ditu “Kirol klubtzat joko dira pertsona fisiko edo juridikoek osatutako elkarte pribatuak. Baldin eta kirol modalitate bat edo batzuk sustatzeko elkartekideek modalitate horiek praktikatzeko eta kirol jarduera eta lehiaketetan parte hartzen badute.” Nahiz izaera pribatua izan, kirol klubak irabazi asmorik gabeko entitateak dira, 49/2002 legeak (Gobierno de España, 2002) irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoa, adierazten duen bezala entitate hauek ezin dituzte diru irabaziak bertako kideen artean banatu. Irabazi horiek klubean bertan inbertitu beharko dituzte, klubaren berrikuntza eta kalitate hobeko bat eskaintzera bideratuz (Gobierno de Navarra, 2003). Beste modu batez esanda, irabazi asmorik gabeko erakundeek izen hori jasotzen

dute, hain zuzen ere, bazkide, jabe, zuzendari edo langileen artean irabaziak banatzeko helbururik ez dutelako (Bergamín eta Pradas, 2013).

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eskusiboak ditu kirola sustatzeko arloan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren (Nafarroako Gobernua, 1982) 44.14 artikulua arabera; horrek aukera ematen dio kirolari dagokionez modu propioan arautzeko. Hori dela eta, Nafarroak apirilaren 14ko 80/2003 Foru Dekretua dauka (Gobierno de Navarra, 2003), Nafarroako kirol erakundeak eta Nafarroako kirol erakundeen erregistroa arautzen dituena; horrela izanik, Nafarroako kirol-erakundeen araubidea, bai eta haien erregistroa ere garatzen ditu, beraz, zuzenean eragiten die kirol klubei eta kirol sustapeneko gainerako erakundeei. Dekretu honek beti errespetatu behar du Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa (Gobierno de España, 2002) eta Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legeak (Nafarroako Gobernua, 2001) ezarritako erregulazioak. Lehenengoak, Espainiako Konstituzioaren (Gobierno de España, 1978) 22. artikuluan aitortutako elkartzeko oinarriko eskubidearen edukiaren funtsezko elementuak arautzen eta zehazten ditu. Bigarrenak, berriz, Nafarroako kirola arautu, antolatu eta koordinatzen du.

80/2003 Foru Dekretuaren (Gobierno de Navarra, 2003) arabera, kirol klubak elkarte pribatuak dira, irabazi asmorik gabekoak, nortasun juridiko propioa dutenak eta beraz, jarduteko gaitasun osoa dutenak. Egoitza Nafarroan izanik, bertan kirol jarduerak sustatu eta gauzatzea izango dute helburu.

## 2.2 Kalitatea

Zeithaml-ek (1988) adierazten duen moduan, kalitatea entitate baten biziraupenerako eta arrakastarako ezinbestekoa da, horregatik oso garrantzitsua da klub batentzako kalitatea zer den argi izatea eta hori neurtzeko tresna egokia topatzea. Ez bakarrik kalitatezko eskaintza bat izateko, klub baten biziraupena ziurtatzen duen ezinbestekoa den bezeroen fidelizazioa sortzeko ere (Theodorakis eta lank., 2014).

Autore desberdinek era desberdinean definitzen dute kalitatea, orokorrean behatu diren definizioak bat datozen, horren adibide da bezeroek produktu edo zerbitzu batekiko bikaintasunari edo nagusitasunari buruz duten iritzia edo ebaluazioa dela kalitatea, beti ere erabili edo kontsumitu ostekoa (Dorado eta Gallardo, 2005; Crosby 1979; Marques, 2002; Moreno eta lank., 2012; Zeithaml, 1988).

Aurretik aipatu den bezala, Zeithaml-ek gehitzen du, baldintza bat dela arrakastarako edo, hobeto esanda, negozioen biziraupenerako. Bestalde, Moreno eta lank.-ek, (2012) bezeroen pertzepzioa aldagarria dela diote, prozesu psikosozial, kognitibo eta afektiboen menpe dagoelako.

Oliva-ren (2005) arabera bi kalitate mota daude: subjektiboa, kontsumitzailearekin lotzen duena; eta objektiboa, ekoizlearekin lotzen duena. Moreno eta lank.-ek, (2012), pertzepzio aldagarritasuna bezeroek adieraztean duten kalitatearen pertzepzioaren subjektibitatearekin lotzen dute.

Casielles eta lank.-ek, (1996) adierazten duten moduan, kalitatea objektiboki hartuta, honen barneko ikuspegia da, eta ekoizpen edo eskaintza ikuspuntutik zehazten da. Aldiz, subjektibotasuna kanpoko ikuspegia da, marketing eta eskari ikuspuntutik zehaztutakoa. Esan daiteke beraz, kalitateak bi alderdi dituela; alde batetik, objektiboa, zeinetan estandarizazio batzuen bitartez jarduten den. Honen adibide kalitate sistemak izan daitezke, zeintzuek jarraibide batzuk ezartzen dituzten kalitate maila konkretu bat dagoen edo ez epaitzeko. Eta bestetik, alderdi subjektiboan benetako bezeroa da epaile, zeinek enpresaren trebetasuna, bezeroen beharrak, desioak eta itxaropenak hartzen dituen kontuan.

### 2.3 Hautemandako balioa.

Zeithaml (1988) aitzindari da hautemandako balioa definitzerakoan eta hala izanik ere, gaur egun oraindik bere definizioa da onartuena eta gehien erabiltzen dena, "kontsumitzaileak jasotzen eta ematen duenaren pertzepzioetan oinarritutako produktu baten erabilgarritasunari buruz egiten duen balorazio orokorra da".

Termino argi ulertzeko ez da nahikoa definizioa, beharrezkoa da ezaugarri nagusiak azaltzea. Martin eta lank, (2004) hiru ezaugarri nagusi goraiatzten dituzte: hautematea, dinamismoa eta erlatibotasuna.

Hautemandakoa dela adierazten denean, bezeroaren iritzia dela esan nahi da. Jasotakoaren eta emandakoaren alderatzea izango da iritzi horren oinarria (Zeithaml, 1988). Balio hori denborarekin aldatzen doa, ez du zertan hasiera batean eta erabilpenaren ostean berdina izan. Aldi berean, pertsona baten bizitzako ziklo desberdinetan ez du produktu edo zerbitzua era berean hautemango, beraz, aldakorra da (Oliver eta lank.,1997; Parasuraman, 1997). Erlatibotasuna merkatuko lehiakortasunetik dator, antzeko produktu edo zerbitzuekiko izandako iritzia eragina izango du beste zerbitzu batzuen hautemandako balioa definitzerakoan (Holbrook, 1994).

Autore gehienak ados daude esandakoarekin, adieraziz hautemandako balioa izaera dinamikoa duen terminoa dela, pertsonen egoeraren arabera aldagarria dena eta elementu desberdinek osatzen dutena (Bernal, 2013).

Dudarik gabe esan daiteke ezinezkoa dela termino hau objektiboa izatea, kalitatea bera bezala bezeroaren pertzepzioa baitu oinarri. Ala ere, Llorens-en (2011) arabera posible da hautemandako balioaren ikuspegi desberdinak definitzea subjektibotasun hori nolabait klasifikatuz. Zeithaml (1988) oinarri harturik, lau ikuspegi zehazten ditu:



1. Kostuan oinarritutakoa: diru gastuaren osagaia dauka oinarri eta balioa prezio baxuarekin parekatzen da.
2. Orokorra: jasotakoa era integralean baloratzen da, hau da, produktua edo zerbitzua bere osotasunean.
3. Kalitate-prezio erlazioa: balorea, kalitate-prezioaren erlazioaren sinonimotzat jotzen da. Hau da, bezeroak jasotakoa ordaindutakoaren arabera epaituko da.
4. Orokorrena: aurre iritzi batekin lotzen da, kontsumitzaileak produktu edo zerbitzuarengatik emango duenaren arabera jasoko duenaren irudikapen propio bat egiten du. Jasotakoa irudikapen horrekin bat badator pertzepzioa positiboa izango du, ala ez bada, negatiboa.

#### 2.4 Gogobetetasuna.

Gogobetetasunarekin hasteko garrantzizkoa da terminoa etimologikoki azaltzea ondorengo diskurtsoa ulertzen lagunduko duelakoan. Latinetik eratorritako hitza da, eta "egin (facere) nahiko (satis) esan nahi du, hala izanik, aseta egotearen sentimenduarekin lotuta dago (Oliver eta lank., 1997).

Terminoaren ulermenarekin jarraituz eta autore desberdinak aztertu ondoren, hiru ikuspegi daudela ondoriozta daiteke: kognitiboa, emozionala eta duala. Azken hau, lehen bien bateratzetik sortzen dena.

Bernalek, (2013) adierazten duen moduan, lehendabiziko ikuspegiak, kognitiboak, arrazionalismoa dauka oinarri. Subjektuak kognitiboki informazioa prozesatzen du, ondoren gogobetetasun gradu handiagoa edo txikiagoa esleituz. Honen aldekoen arabera (Oliver eta lank., 1997; Westbrook, 1980; Churchill eta Brown, 1993) gogobetetasuna aurretiko itxaropen eta zerbitzuaren erabilerarekin lortzen diren ondorioak alderatzeko prozesu baten emaitza da.

Bigarrengo ikuspegiak, emozionalak, izenak berak argi uzten duen bezala, emozioak ditu oinarri. Hauen ustez ez dago gogoeta edo prozesurik zeinen ondorioz gogobetetasuna definitzen den. Zuzenean, bizitakoa, azaleratutako edo eragindako emozioen arabera definituko da gogobetetasuna (Zjonk, 1980). Hau da, gogobetetasuna produktu zein zerbitzu bati, bizitako esperientzien arabera, emandako erantzun emozionala da (Oliver, 1997). Beste hitzetan adierazita, kontsumo esperientziaren bitartean emozio desberdinak bizitzen dira, eta hauek dira azken iritzia osatzen dutenak (Westbrook, 1980).

Aurretik aipatu den moduan, azkeneko ikuspegia jada plazaratu diren bien bateraketatik sortzen da, horregatik, ikuspegi kognitibo-afektiboa da. Honakoa, ikuspegi integrala bezala definitzen da, gogobetetasuna bizitako esperientziek sortutako emozioen ondorioa den informazioaren prozesu kognitibo bat bezala ulertuz (Bernal, 2013).

Gogobetetasunaren garrantzia bezeroaren fidelizazioarekin lotzen da. Izan ere, aseturik dagoen bezero batek esperientzia bospasei pertsonarekin partekatze joera duela baieztatzen da (Camino eta Garcia, 2014). Horrela, asetua egonez gero, zerbitzu bat berriro erabiltzeko edo erosteko aukera handiagoa izango da. Hori dela eta, gogobetetasuna duen bezero batek eragin positiboa izango du entitatearentzako, adibidez, komunikazio-kostuak jaitsiz, bezero berrien erakarpenean eta abar.

#### 2.5 Kalitatea, hautemandako balioa eta gogobetetasunaren arteko erlazioa.

Behin terminoak azalduta, posible da haien arteko eragina azaltzea. Hala ba, kalitatea funtsezkoa da hautemandako balioarentzat autore desberdinen esanetara (Aurier eta de Lanauze, 2011; Teas eta Agarwal, 2000). Balioa kalitatearen ondorioa bezala definitzen dute, horregatik azken urteetan, kirolaren esparruan ere, haren analisiaren inguruko hainbat ikerketa egin dira (Calabuig eta lank., 2010). Hautemandako balioaren eta gogobetetzearen artean funtsezko lotura dago, kontzeptu biak ebaluazio-iritzien bidez eraikitzen baitira (Woodruff eta Gardial, 1996).

Hori dela eta, kalitatea beste bien aurrekaria bada (Aurier eta de Lanauze, 2011; Teas eta Agarwal, 2000; Calabuig eta lank., 2010), hala nola balioaren eta asebetetzearen arteko erlazioaren emaitza, bezeroaren pertzepzioak zenbat eta positiboagoak izan, orduan eta aukera gehiago egongo dira erabiltzaileek epaitzen ari diren kirol zerbitzuak erabiltzen jarraitzeko (Cronin eta lank., 2000). Era berean, aukera gehiago egongo dira erakundea gomendatu eta bezero berriak sortzeko, kontrako noranzkoan gertatuko litzatekeen bezala. Hau da, adibide gisa, bezeroa ez badago pozik kirol klubari kalitate baxua esleituko dio, eta hori izango da bere inguruan transmitituko duen mezua. Oso negatiboa da hori, batez ere kirol-bazkideen kuotei esker irauten duen erakundearentzat (Camino eta Garcia, 2014).

#### 2.6 Kalitate sistemak.

Aurretik aipatu bezala, ezinbestekoa da erakunde batentzako ahalik eta kalitate altuagoko zerbitzua eskaintzea hori baita bezeroaren asebetetzea eragingo duena. Eta badaude sistema batzuk erakundearen kalitatea lortzeko jarraibideak zehazten dituztenak, horiek azalduko dira atal honetan.

Trapote eta Ugaldek (1999), haien lanean jasotzen duten bezala kalitate sistemak erosle handien beharretatik sortu ziren, hauek ohartu ziren hornitzaileek haien zehaztapenak bermatzeko beharrezkoa zela produktuaren kalitatean eragina izan zezaketen erakundearen alderdi guztiak sistematizatzea eta dokumentatzea. Ildo horretatik, berehala konturatu ziren kalitatea bermatzeko sistema bat kalitate-eskuliburu batean dokumentatua egon behar dela, zeinetan prozedura eta jarraibide teknikoak zehaztuko diren. Eskuliburuak kontuan hartu beharko ditu erakundeak ematen duen produktuaren edo zerbitzuaren azken kalitatean eragina duten alderdi guztiak.


Beharrezkoak ikusten ziren eskuliburu horiek, gaur egun kalitatea neurtzeko sistemak dira. Hau sustatzen eta aurrera eramaten duten erakunde zein arau desberdinak daude, ISO (International Organization for Standardization), UNE (Una Norma Española), AENOR (Asociación Española de Normalización y Certificación), EFQM (European Foundation for Quality Management), FUNDIBEQ (Fundación Iberoamericana para la Gestión de la Calidad), Malcom Baldrige National Quality Award, JUSE (Union of Japanese Scientists and Engineers), eta EUSKALIT adibidez.

Dorado eta Gallardok (2005) adierazten duten bezala, sistema hauek kalitatearen bidez hobetzea dute oinarri, interes talde guztien gogobetetasuna handitzen laguntzen dutelarik. Bide horretatik, agerian uzten dute aukera handiak daudela epe luzera arrakasta iraunkorra bermatzeko eta horiek erabiltzen dituzten kirol-erakundeentzat ere nahi diren emaitzak lortzeko. Kalitatearen ikuspegitik lan egiteak erakundeei etengabe hobetzeko ingurune bat ezartzeko aukera ematen die, eskura dauden baliabideen garapena eta optimizazioa errazten duena. Horrek guztiak zerbitzuak jasotzen dituzten erabiltzaileen gogobetetasuna errazten eta areagotzen laguntzen du.

Sistema hauek guztiak aztertzerakoan, berdintasunak zein beste desberdintasun topatzen dira. Baina berdintasun nagusia, sistema hauen filosofian ezarritako metodologia da. Metodologia hau etengabeko berresleipenean datza (Deming, 1989), hau aurrera eramateko, Shewhart-ek (1982) lau faseko zikloa ezarri zuen, PDCA (planifikatu, egin, egiaztatu, jardun) etengabeko hobekuntzarako sistema gisa.

## 2.7 Gogobetetasuna neurtzeko tresnak.

Kudeaketa munduan PDCA zikloaren lehendabiziko fasea aurrera eramateko, beharrezkoa da erakundearen azterketa bat egitea. Horrela, ezagutu ahal izateko zein den horren errealitatea, zein alderdi daukaten funtzionamendu egoki bat eta nola hori mantendu daitekeen. Baita, zein alderdi eragozten duten erakundea aurrera egitea eta zelan egin diezaiokeen horiei aurre. Hautemandako balioaren garrantzia azpimarratzeko Fornell eta lank.-en eta Johnson eta Gustavson-en (2000) lanetan agertzen den irudia berreskuratu da (ikus 1.irudia), zeinetan hautemandako balioaren eta bezeroen fidelizazioaren arteko lotura zuzena azpimarratzen den. Haien hitzetan gogobetetasuna da kalitate eta fidelizazioaren arteko aldagaia.



1. Irudia: Bezeroen fidelizazioaren lotura. (Sorkuntza propioa, Dorado eta Gallardo, 2005 oinarritua)

Dorado eta Gallardok (2005) haien lanean goraipatzen dute galdetegien erabilpena bezeroen gogobetetasuna ezagutzeko, esaten dute erabiltzaileen eskaerak ezagutzeko ahalmen handiena duen tresnetariko bat dela baita errealitatearen ezagutza handia ematen dutela. Horretaz gain, erabilpen errazeko tresna dela adierazten dute, kostu ekonomiko txikikoa eta ahalegin eta denbora asko aurrezteko ahalbidetzen duena. Dorado eta Gallardok (2005) haien lanean aipatzen duten Bouchard eta lank.-ek (1994) beste neurketa metodoekin alderatuz goraipatzen dituzte galdetegien abantailak, aipatuz, jarduera fisiko mota zehatz bakoitzari buruzko informazioa eman dezaketela, erraz betetzen direla eta erabiltzaileen ikuspuntutik ematen dutela kalitatearen pertzepzioa.

Beharrezko azterketa erakundea osotasunean harturik egin ahal izateko ezinbestekoa da bezeroen iritzia ezagutzea. Iritzi hori ezagutzeko eta zerbitzuen kalitatea neurtu ahal izateko, bi galdetegi goraipatzen dira, SERVQUAL eta SERVPERF.

Lehendabizikoa, SERVQUAL, Parasuraman eta lank., (1988) sortua, oinarria dauka zerbitzuaren kalitatearen itxaropen eta pertzepzioen arteko desberdintasunean. Aldiz, SERVPERF eskalan soilik bezeroaren pertzepzioa neurtzen da bakarrik. Bigarrenengo hau, aurrekoaren errebisiotik sortu zuten Cronin eta Taylor-ek (1994), haren bost dimentsioak mantenduz.

Armada-ren (2015) ustez zerbitzuaren kalitatearen arloko ikerketek agerian jartzen dute bezeroak kirol zerbitzuei ematen dien kalitatearen pertzepzioa, bere beharren eta asebetetzearen itxaropenaren arabera dela. Morales-ek (2009) adierazten du pertzepzio horretan kirol erakundeen berezkoak diren sei faktore eragiten dutela. Honakoak dira faktore horiek: alderdi arkitektonikoak, instalazioen mantentze-lanak, jardueren edukiak eta ezaugarriak, kirol teknikariak, instalazioko langileak eta erakundearen giro soziokulturala. Beraz, sei alderdi hauek kontuan izatea ezinbestekoa da bezeroen iritzia ezagutzeko tresna erabakitzerakoan.

## 2.8 EPOD2.

EPOD2 galdetegia (Nuviala eta lank., 2013), kirol zerbitzuetan erabiltzeko sortu zen (Alonso eta Segado, 2015), SERVPERF eskala oinarri izanik. Beraz, lehen aipatu den bezala, honakoan bakarrik bezeroaren pertzepzioa neurtzen da (Armada, 2015). Morales-en (2009) dimentsioak kontuan hartuz, hiru alor desberdintzen dira, hautemandako balioa, gogobetetasuna eta kalitatea (Nuviala eta lank., 2013). Hiru hauen bateratzean datza galdetegi honen garrantzia, izan ere, galdetegi honek aukera ematen du hiru terminoak erlazionatzen, haien ezberdintasunak eta elkarren arteko erlazioa kontuan izanik. Jada esan den bezala, hauek erabiltzaileen jokabidean eragin zuzena dutela frogatuta dago, erabiltzailearen balorazioaren eta fidelizazioaren artean erlazio zuzena egonik (Theodorakis eta lank., 2014; Camino eta Garcia, 2014). Galdetegi honek aukera ematen du fidelizatzeko horretan eragiten duten alorrak ezagutzeko eta jakiteko zeintzuk doazen bide egoki batetik eta zeintzuk ez.

EPOD2 galdetegiak Likert motako eskala bat erabiltzen du (1, erabat desadostu; 5, Guztiz adostu). Guztira, 25 item osatzen dute tresna hau, ikerketaren aldagaiak izango direlarik. Horiek, zortzi dimentsioetan banatzen dira; begiralea edo entrenatzailea (4 item), instalazioak (3 item), kirol materiala (3 item), jarduerak (5 item), komunikazioa (3 item), erakundeko langileak (2 item), gogobetetasuna (4 item) eta adostasun maila (item 1), (Nuviala eta lank., 2013). Camino eta Garcia (2014) ikuspegi orokorrago batetik hiru dimentsio definitzen dituzte; kalitatea (20 item), gogobetetasuna (4 item) eta hautemandako balioa (item 1).

Aipatu beharra dago, fidagarria eta balidatutako galdetegia dela. Hau da, ziurtatua dago neurtu nahi dena neurtzen duela eta korrelazio positiboa dagoela (Nuviala eta lank., 2013; Camino eta Garcia, 2014). Aldi berean, goraiatzekoa da galdetegiaren aplikazio erraztasuna eta informazio esanguratsua ematen duela (Nuviala eta lank., 2013).

Camino eta Garcia-k (2014) galdetegi hau erabili zuten saskibaloiko kirol klub baten egoera aztertzeko. Ondorioen artean aipatzen dute haiek burututako azterketaren emaitzek aurretik Nuviala eta lank. (2013), Theodorakis eta lank. (2014), Calabuig eta lank. (2010) hautemandako balioa, gogobetetasuna eta kalitatearen arteko adierazitako erlazioa indartzen dutela, gauza bera adierazten dute Sanchez eta lank.-ek (2017). Hala nola, azterketa berak ziurtatzen du kirol erakunde mota desberdinetan hobekuntza alderdiak hautemandako galdetegi baliogarria dela. Horretaz gain, aurkikuntzek klub bateko partaideekin erlazio positiboa izatearen alde egin dute. Ados daude hauekin Lopez eta Escaravajal (2019), zeintzuek Espinardoko Unibertsitateko kirol zerbitzuen gogobetetasuna ezagutzeko erabili zuten EPOD2 galdetegia. Gauza bera uste dute Sanchez eta lank. (2017), igerileku estali baten erabiltzaileen gogobetetasuna aztertzeko erabili zutenak galdetegia.

### 3. HELBURUAK

Beraz, ikerketa honen helburu nagusia, Arrotxapea K.K.E.-aren bezeroen klubarekiko pertzepzioa, asebetetzea eta kalitatea ezagutzeta da.

Azpi-helburuak honakoak dira:

- Erabiltzaileen kalitate, asebetetze eta pertzepzioa aztertzea azpi-dimentsioen arabera, klubeko sekzio ezberdinak kontuan izanik.
- Erabiltzaileen kalitate, asebetetze eta pertzepzioa aztertzea klubeko interes talde desberdinen arabera.
- Erabiltzaileen kalitate, asebetetze eta pertzepzioa aztertzea klubeko erabiltzaile motaren arabera.

### 4. METODOA

#### 4.1 Parte hartzaileak


Aztertuko den Arrotxapea K.K.E. kirol klub bezala definitu daiteke, irabazi asmorik ez daukalako eta kirol modalitate batzuk sustatzen dituen elkarte pribatua delako. Ikerketa honetako parte hartzaileak klub honen erabiltzaileak izango dira, hori izanik inklusio irizpide nagusia, bestelako irizpideak ikerketan parte hartu nahi izatea eta parte hartze onarpena ematea izango dira. Esklusio irizpide bakarra aurreko irizpideak ez betetzea izango da. Beraz, esan daiteke, ikerketaren lagina adin nagusiko Arrotxapea K.K.E.-ko erabiltzaileak direla.

Laginaren tamaina, honen unibertsoaren arabera kalkulatu da. %95-eko konfiantza mailarentzako eta %5-eko errore margenarekin laginaren magnitudea 184 pertsona dira.

Hala ere, ez da lortu, 184 pertsonen erantzutea, hortaz, berriz kalkulatu behar izan da, lagina honela geratzen delarik; Jasotako 98 erantzunentzako konfiantza maila %95-ekoa izanik, %8-ko errore margena dago. Beraz, ezin dira baieztapen orokorrik egin datuekin, baina jakin daiteke zein den dagoen joera.

Parte hartzaileen profil orokorra, 1go grafikoa aztertuz definitu daiteke.

5. 1. Grafikoa: Laginaren profila.



Orokorrean, parte hartzaileak klubeko bazkideak direla esan daiteke. Sekzioei begira gehien parte hartu duena gimnasia erritmikoa izan da. Aipatzekoa da, beste sekzioen parte hartzea baxua izan dela, hockey izan ezik. Horretaz gain, ikus daiteke parte hartzaile nagusia 45-64 urte tarteko guraso diren emakumeak direla, unibertsitate ikasketak dituztenak.

### 5.1 Tresna

Datuen bilketa burutzeko galdetegi bat erabili da, bi ataletan banatua. Lehenengo atalean Nuviala eta lank.-ek (2013) proposatutako EPOD2 izena hartzen duen galdetegia erabili da. Honakoan hainbat termino aldatu egin dira egoerari egokitzeko, alde batetik, berdintasun hizkuntza errespetatzeko aldaketak egin dira. Bestetik, era elebidunean bidali ahal izateko item guztiak euskaratuak izan dira. Azkenik, kluba hitza txertatu zen erakunde mota espezifikatzeko. Honen bidez, bezeroak klubeko kalitate, hautemandako balioa eta gogobetetasunaren inguruan nolako pertzepzioa duten informazioa bildu nahi da.

Bigarren atala, aldiz, sorkuntza propiokoa da eta datu orokorren bilketa egitea dauka helburu: bazkide izatea, generoa, adina, zein sekzioen parte den, zein multzoren barruan dagoen, ikasketak eta kluba ezagutzeko bidea. Laburbilduz, ondorengo zerrendan erabilitako tresnaren egitura azaltzen da, 1. eranskinean aurkitu daitekeena:

- Lehendabiziko atalean ikerketaren helburuei eta metodologiari buruzko beharrezko informazioa eman zen, bai eta hura betetzeko beharrezko instrukzioak ere.
- Bigarren atalean EPOD2 galdetegiaren 25 item-ak aurkezten ziren, aurretik aipatutako zortzi ataletan banatua, bakoitza bere likert eskalarekin.
- Azkeneko atalean datu orokorrak biltzeko galdera desberdinak txertatu ziren
- Amaitzeko, eskerrak emateko mezu bat jarri zen.
- Jada ikerketa bideratua, galdetegia prestatu eta euskaratu zen, elebidun eran bidali ahal izateko, lehendabizi euskaraz eta jarraian erderaz.

EPOD2 galdetegia erabiltzea erabaki da, lehenik eta behin fidagarria eta balidatutakoa delako. Baita kirol entitateetarako zehazki bideratua dagoelako ere eta aztertu nahi diren hiru alorrak era bateratuan aztertzea ahalbidetzen duelako. Bestalde, bere aplikazio erraztasunagatik, galdetegi ulergarria izateagatik, laburra delako eta sujetuei helarazteko erraza izateagatik aukeratu da.

### 5.2 Prozedura

Lehenik eta behin, entitatearekin kontaktua ezarri zen proiektua aurkeztu eta parte hartzea baieztatzeko. Hasierako kontaktu horren ostean, onespren dokumentu( 2. eranskina) prestatu zen, entitateko lehendakariak sinatzeko. Bertan, onspena ematen zuen ikerketan parte hartzeko eta

azterlaneko parte hartzaileei galdetegiari buruzko beharrezko informazioa antolatu eta zabaltzeko ardura hartzen zuen ere. Aldi berean, lehendakariaren partetik behar zen informazioa jaso zen, hala nola, klubak zenbat sekzio dauzkan eta zein kirolakoak diren, zenbat pertsonen osatzen duten sekzio bakoitza, zenbat pertsonen osatzen dute zuzendaritza batzordea, etab.

Erabaki zen typeform erramintaren bidez helaraztea, izan ere, aukera ematen du esteka baten bidez online azkar eta erraz zabaltzeko. Horretarako, typeform erramintan galdetegiaren diseinua egin zen, atal desberdinak ezarriz.

Behin diseinua txukunduta eta berrikusita, esteka sortu zen galdetegia betetzera animatzen zuen mezu batekin batera. Honakoa helarazteaz klubeko lehendakaria arduratu zen, adostu zen whatsapp bidez zabaltzea, bide azkarrena eta eraginkorrena izango zela uste baitzen. Otsailaren 9an lehendakariak link-a zuzendaritza batzordeko parte hartzaileei bidali zien baita sekzio bakoitzeko ordezkariari ere eta hauek haien sekzioko talde desberdinetatik pasa zituzten.

Otsailaren 23an, bakarrik 29 pertsonen erantzun zutela ikusita, galdetegia birbidali egin zen gorai patuz hura betetzearen garrantzia. Baina, astebete igarota bakarrik 32 erantzun jaso ziren. Egoerari aurre egiteko erabaki zen hirugarren saiakera bat egitea, baina zabaltze bidea aldatuz, oraingoan klubeko ofizinatik aurreikusitako parte hartzaile guztiei korreoz bidali zitzairen galdetegia betetzeko esteka. Hirugarren eta azken bidalketa hau martxoaren 9an egin zen eta galdetegia irekia egon zen hiru asteren bitartean 98 erantzun lortu ziren.

Behin datuak jasoak type form-etik jaitsi ziren, zuzenean excell batera. Excell-eko formulak erabiliz datuen batz bestekoa atera zen. Datu horiek behatu eta ondorengo atalean plazaratuko den analisi deskriptiboa burutu zen.

Aipatu beharra dago, ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitateko Gizakiekin Ikertzeko Etika Batzordearen (CEISH) aldeko txostena (M10\_2020\_281) izan zuen.

### 5.3 Datuen analisisa

Azterketa estatistiko deskribatzailea burutu da, galdera edo item bakoitzaren emaitzak batezbestekoaren (bb) eta desbideratze estandarren (ds) arabera aurkezten direlarik. Horrez gain, dimentsio eta azpi-dimentsio bakoitzaren batezbestekoa (bb) eta desbideratze estandarra (ds) aldagai ezberdinekiko kalkulatu da ere. Azterketa estatistiko hau, Statistical Package for Social Sciences (SPSS Inc, 15,0 Chicago, IL, AEB) programarekin burutu da.



## 6. EMAITZAK

Atal honetan galdetegiaren bidez lortutako emaitzak azalduko dira. Hasteko datu orokorrak plazaratuko dira eta, segidan, landutako hiru dimentsioen arabera aztertuko dira (kalitatea, hautemandako balioa eta gogobetetasuna). Ondoren, azpi dimentsioak landuko dira (entrenatzaileak, instalazioak, materiala, jarduerak, komunikazioa, erakundeko langileak, gogobetetasuna eta adostasuna), bai modu orokorrean, baita aldagai ezberdinak kontuan hartuta ere: sekzioak, interes taldeak eta bazkidetza.

Jarraian, 1.taulan datu orokorrak aurkezten dira, lagin osoa kontuan harturik.

1. Taula: Datu orokorrak lagin osoaren arabera

Datu orokorrak				
item-ak	N	Min.	Max.	bb ± ds
1.1.Begiralearen tratua pozik nago	90	1	5	4,17 ± 1,00
1.2.Lehen egunetik arreta egokia eskaintzen du	90	1	5	4,07 ± 1,07
1.3.Entrenamenduak beharretara egokitzen ditu	90	1	5	4,02 ± 1,08
1.4.Taldea behar beste animatzen du	90	1	5	4,09 ± 1,12
1. Totala	90	1	5	4,09 ± 1,00
2.1.Aldagelak behar beste garbi daude	94	1	5	3,67 ± 1,13
2.2.Aldagelak behar beste zabalak dira	94	1	5	3,89 ± 1,04
2.3.Instalazioak behar beste garbi daude	96	1	5	3,65 ± 1,10
2.Total	96	1	5	3,73 ± 0,91
3.1.Entrenamenduetarako material nahiko dago	92	1	5	3,83 ± 1,13
3.2.Materiala egoera egokian dago	92	1	5	3,65 ± 1,22
3.3.Materiala modernoa da	92	1	5	3,62 ± 1,16
3. Totala	93	1	5	3,70 ± 1,10
4.1. Jarduera atsegina da	92	1	5	4,29 ± 0,88
4.2.Ekintza anitzak burutzen dira	91	1	5	4,18 ± 0,85
4.3.Denboran amaitzen dira	91	1	5	4,29 ± 0,81
4.4.Esperotako emaitzak lortu ditut	91	1	5	4,27 ± 0,87
4.5.Erraza izan da jardueran sartzea	90	1	5	4,23 ± 0,96
4.Totala	92	1	5	4,26 ± 0,75
5.1.Iradokizunentzako bitartekoren bat dute	94	1	5	4,04 ± 1,00
5.2.Jarduerei buruzko informazioa egokia da	97	1	5	4,12 ± 0,96
5.3. Jarduera eskaintza uneoro berritzen da	94	1	5	3,82 ± 1,18
5. Totala	97	1	5	4,02 ± 0,92
6.1. Klubeko langileen tratua atsegina da	98	1	5	3,88 ± 1,18
6.2.Langileen artean harreman ona dago	93	1	5	3,82 ± 1,08
6.Totala	98	1	5	3,85 ± 1,10
7.1. Kluba aukeratu izana erabaki ona izan da	97	1	5	3,96 ± 1,21
7.2.Konforme nago klubean izena emateagatik	97	1	5	3,90 ± 1,25
7.3.Pozik nago klubean jarduerak egiteagatik	95	1	5	4,19 ± 1,04
7.4. Pozik nago klubean izena emateagatik	97	1	5	3,86 ± 1,29
7.Total	98	1	5	3,97 ± 1,15
8.1.Pozik nago jardueraren kalitate/prezio	95	1	5	3,55 ± 1,34

N. parte hartzaile baliagarriak  
bb ± ds. batz bestekoa ± desbideratzea

Min. Minimoa  
Max. Maximoa

Taulan ikus daitekeen moduan (ikus 1.taula), N zutabeen, parte hartzaileek ez dituzte item guztiak bete. Beraz, erantzun kopurua ezberdina da item bakoitzeko. Orokorrean, batz bestekoak 3,55 eta 4,29 artean daude, honek esan nahi du bezeroak ados eta nahiko ados daudela item guztietan. Ikusten den batz besteko baxuena (8.1 itema) gogobetetasunari dagokio, zehazki kalitate eta prezioaren arteko harremanari. Hala ere, balore baxuena izan arren, adostasuna adierazten du jasotako zerbitzu eta horren kalitate eta prezioaren arteko harremanarekin. Hobekien baloratutako aldagaiak (4.1 eta 4.3 itemak), 4,29 puntuazioarekin, jardueren azpi dimentsioari erreferentzia egiten diote, jardueraren atsegintasunari eta ikastaroen amaiera orduari konkretuki.

### 6.1 Dimentsioen analisisia.

Oraingoan, emaitzak dimentsioen arabera aztertuko dira eta horretarako honako 2.taula aurkezten da:

2. Taula: Dimentsioen totala lagin osoaren arabera

Dimentsioen totalak						
Item-ak	N	Min.	Max.	bb	±	ds
Kalitatea totala	93	1	5	4	±	1,04
Asebetetzea totala	98	1	5	3,97	±	1,15
Hautemandako balioa totala	95	1	5	3,55	±	1,34

N. parte hartzaile baliagarriak

Min. Minimoa

bb ± ds. batz bestekoa ± desbideratzea


Max. Maximoa

Taulan agerienez (ikus 2.taula) kalitate totala 4 batz bestekoa dauka, nahiko ados egoteko joera adierazten duena. Bestalde, asebetetzeari dagokionez, berriro ere parte hartzaileak nahiko ados daude, dimentsio honek 3,97 batz besteko totala duelarik. Datu orokorren 1.taulara itzuliz, antzeman daiteke dimentsio honetan balorerik altuena 4,19 dela, "Erabaki ona izan zen klub honetan kirol jarduerak egitea" aldagaiarekin bezeroak nahiko ados daudela esan nahi duena. Balore baxuena daukan aldagaia, 3,86 batz bestekoarekin, klubean izen ematearekin pozik egoteari egiten dio erreferentzia. Balore altuena zein baxuena kontuan harturik, baita dimentsioaren totala 4 inguruan kokatzen dela ere, esan daiteke klubeko bezeroek dimentsio honek adierazten duen asebetetzearekin nahiko ados daudela. Azkenik, hautemandako balioa dimentsioari erreparatuz, totalaren batz bestekoa 3,55 da. Hiru dimentsioetatik balore baxuena bada ere, adostasuna eta nahiko adostasunaren arteko balioa dauka, beraz, kasu honetan bezeroak ere adostasunerako joera adierazten dute hautemandako balioari dagokionez.

Jarraian, eredu ikusgarriago bat izateko hiru dimentsioen grafiko bat erakusten da (ikus 2.grafikoa). Bertan, argi adierazten du hautemandako balioa dela, desberdintasun nabariarekin,

gutxien baloratutako dimentsioa; aurreko taulan ikusi den moduan. Beste bien artean, ezberdintasuna txikia bada ere, kalitatea da hoberen baloratutakoa.

2. Grafikoa: Dimentsioen azterketa.



## 6.2 Azpi-dimentsioen analisia.

Azpi dimentsioei dagokienez, orokorrean hoberen baloratutako azpi-dimentsioa eta gutxien baloratu ezagutzeko hauetako bakoitzari dagozkion item guztien bataz bestekoa atera da, baita horien minimo, maximo, bataz bestekoa eta desbideratzea ere, ondorengo 3.taulak ikusgai uzten dituenak.

Azpi-dimentsioak				
	N	Min.	Max.	bb ± ds
Entrenatzaileak totala	90	1	5	4,09 ± 1,00
Instalazioak totala	96	1	5	3,73 ± 0,91
Materiala totala	93	1	5	3,70 ± 1,10
Jarduerak totala	92	1	5	4,26 ± 0,75
Komunikazioa totala	97	1	5	4,02 ± 0,92
Erakundeko langileak totala	98	1	5	3,85 ± 1,10
Gogobetetasuna totala	98	1	5	3,97 ± 1,15
Hautemandako balioa totala	95	1	5	3,55 ± 1,34

N. parte hartzaile baliagarriak

Min. Minimoa

bb ± ds. bataz bestekoa ± desbideratzea

Max. Maximoa

3. Taula: Azpi dimentsioen totalak lagin osoaren arabera.

Orokorrean, baloreak altuak dira eta, beraz, adierazi daiteke bezeroak nahiko ados daudela azpi-dimentsio guztietan egindako adierazpenekin. Hoberen baloratutako azpi-dimentsioa jarduerak dira 4,26 bataz bestekoarekin. Balio baxuena, aldiz, berriz ere hautemandako balioari dagokio.

### 6.2.1 Azpi dimentsioak sekzioen arabera

Analisi sakonago bat burutu ahal izateko azpi-dimentsio bakoitza sekzioen arabera aztertu da, hauen iritzi isolatuak ezagutu ahal izateko. Banaketa hau ondorengo 4.taulan aurkezten da:

4. Taula: Azpi-dimentsioak sekzioen arabera.

Item-ak		Azpi-dimentsioak sekzioen arabera																																
		Gimnasia erritmikoa				Hokey				Futbola				Taekwondo				Kick Boxing				Jiu Jitsu				Xakea								
		N	Min.	Max.	bb ± ds	N	Min.	Max.	bb ± ds	N	Min.	Max.	bb ± ds	N	Min.	Max.	bb ± ds	N	Min.	Max.	bb ± ds	N	Min.	Max.	bb ± ds	N	Min.	Max.	bb ± ds					
ENTRENATZALE	1.1. Begiralearen tratua zekin pozik nago	27	3	5	4,63 ± 0,63	10	4	5	4,6 ± 0,52	3	3	5	4,33 ± 1,15	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	4	4 ± 0	1	5	5	5 ± .	2	4	4	4 ± 0	2	4	4	4 ± 0	
	1.2. Lehen egunetik arreta egokia eskaintzen du	27	2	5	4,52 ± 0,8	10	3	5	4,3 ± 0,82	3	3	5	4 ± 1	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	4	4 ± 0	1	5	5	5 ± .	2	4	4	4 ± 0	2	4	4	4 ± 0	
	1.3. Entrenamenduak beharretara egokitzen ditu	27	2	5	4,56 ± 0,8	10	3	5	4 ± 0,94	3	3	5	4 ± 1	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	1	4	2,5 ± 2,12	1	5	5	5 ± .	2	4	4	4 ± 0	2	4	4	4 ± 0	
	1.4. Taldea behar beste animatzen du	27	2	5	4,7 ± 0,78	10	3	5	4,3 ± 0,67	3	3	5	4 ± 1	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	1	4	2,5 ± 2,12	1	5	5	5 ± .	2	3	4	3,5 ± 1	2	3	4	3,5 ± 1	
1. Totala	27	2,25	5	4,6 ± 0,69	10	3,5	5	4,3 ± 0,67	3	3	5	4,08 ± 1,01	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	2,5	4	3,25 ± 1,06	1	5	5	5 ± .	2	3,75	4	3,88 ± 0	2	3,75	4	3,88 ± 0		
INSTALAZIO	2.1. Aldagelak behar beste garbi daude	25	3	5	4 ± 0,71	9	3	5	4 ± 0,71	3	1	5	2,67 ± 2,08	2	4	4	4 ± 0	2	2	3	2,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	4	5	4,5 ± 1	2	4	5	4,5 ± 1	
	2.2. Aldagelak behar beste zabalak dira	25	2	5	3,96 ± 1,06	9	3	5	4,33 ± 0,87	3	2	4	3,33 ± 1,15	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	5	4,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	3	4	3,5 ± 1	2	3	4	3,5 ± 1	
	2.3. Instalazioak behar beste garbi daude	25	2	5	3,92 ± 0,86	10	3	5	4,1 ± 0,57	3	1	4	2,67 ± 1,53	2	3	4	3,5 ± 0,71	2	1	3	2 ± 1,41	1	5	5	5 ± .	2	3	5	4 ± 1	2	3	5	4 ± 1	
	2. Totala	25	3	5	3,96 ± 0,64	10	3	5	4,07 ± 0,6	3	1,33	4,33	2,89 ± 1,5	2	3,67	4,33	4 ± 0,47	2	2,67	3,33	3 ± 0,47	1	5	5	5 ± .	2	3,67	4,33	4 ± 0	2	3,67	4,33	4 ± 0	
MATERIA	3.1. Entrenamenduetarako material nahiko dago	25	1	5	4,08 ± 1,15	10	3	5	4,3 ± 0,67	3	1	5	3,33 ± 2,08	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	1	3	2 ± 1,41	1	5	5	5 ± .	2	4	5	4,5 ± 1	2	4	5	4,5 ± 1	
	3.2. Materiala egoera egokia dago	25	1	5	4,12 ± 1,17	10	3	5	4 ± 0,82	3	2	5	3,33 ± 1,53	2	3	3	3 ± 0	2	1	3	2 ± 1,41	1	5	5	5 ± .	2	4	5	4,5 ± 1	2	4	5	4,5 ± 1	
	3.3. Materiala modernoa da	25	1	5	4,08 ± 1,15	10	3	5	4 ± 0,82	3	2	4	3 ± 1	2	3	4	3,5 ± 0,71	2	1	3	2 ± 1,41	1	5	5	5 ± .	2	4	4	4 ± 0	2	4	4	4 ± 0	
	3. Totala	25	1	5	4,09 ± 1,11	10	3	5	4,1 ± 0,69	3	1,67	4,33	3,22 ± 1,39	2	3,33	4	3,67 ± 0,47	2	1	3	2 ± 1,41	1	5	5	5 ± .	2	4	4,67	4,33 ± 0	2	4	4,67	4,33 ± 0	
JARDUERAK	4.1. Jarduera atsegina da	27	4	5	4,78 ± 0,42	10	3	5	4,2 ± 0,92	3	3	5	4,33 ± 1,15	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	5	5	5 ± 0	1	5	5	5 ± .	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	5	4,5 ± 0,71	
	4.2. Ekintza anitzak burutzen dira	27	3	5	4,67 ± 0,62	10	3	5	4,1 ± 0,74	3	4	5	4,33 ± 0,58	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	5	4,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	4	4	4 ± 0	2	4	4	4 ± 0	
	4.3. Denboran amaitzen dira	27	3	5	4,26 ± 0,76	10	3	5	4,4 ± 0,7	3	4	5	4,67 ± 0,58	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	5	4,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	5	4,5 ± 0,71	
	4.4. Esperotako emaitzak lortu ditut	27	3	5	4,59 ± 0,57	10	3	5	4,5 ± 0,85	3	3	4	3,67 ± 0,58	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	5	5	5 ± 0	1	5	5	5 ± .	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	5	4,5 ± 0,71	
	4.5. Erraza izan da jardueraren sartzea	25	2	5	4,52 ± 1	10	3	5	4,2 ± 0,63	3	3	5	4 ± 1	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	5	4,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4	5	4,5 ± 0,71	
4. Totala	27	3,2	5	4,56 ± 0,53	10	3	5	4,28 ± 0,65	3	3,4	4,8	4,2 ± 0,72	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	4,4	5	4,7 ± 0,42	1	5	5	5 ± .	2	4	4,8	4,4 ± 0,57	2	4	4,8	4,4 ± 0,57		
KOMUNITATE	5.1. Iradokizuntzako bitartekoren bat dute	51	1	5	4,02 ± 1,01	23	2	5	4,09 ± 0,95	10	4	5	4,5 ± 0,53	3	1	4	2,33 ± 1,53	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	3	3	3 ± 0	1	5	5	5 ± .	2	3	3	3 ± 0	
	5.2. Jarduerari buruzko informazioa egokia da	51	1	5	3,96 ± 0,94	26	1	5	4,35 ± 0,98	10	4	5	4,6 ± 0,52	3	2	5	3,67 ± 1,53	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	2	3	2,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	3	3	3 ± 0	
	5.3. Jarduera eskaintza uneoro berritzen da	50	1	5	3,68 ± 1,17	24	1	5	3,88 ± 1,23	10	4	5	4,6 ± 0,52	3	1	5	3 ± 2	2	3	5	4 ± 1,41	2	2	3	2,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	3	3	3 ± 0	
	5. Totala	51	1	5	3,9 ± 0,91	26	2,33	5	4,17 ± 0,88	10	4	5	4,57 ± 0,39	3	1,33	4	3 ± 1,45	2	3,67	5	4,33 ± 0,94	2	2,33	3	2,67 ± 0,47	1	5	5	5 ± .	2	3	3	3 ± 0	
LANGILEA	6.1. Klubeko langileen tratua atsegina da	51	1	5	3,67 ± 1,23	27	2	5	4,15 ± 1,1	10	3	5	4,2 ± 0,63	3	1	5	3,67 ± 2,31	2	4	5	4,5 ± 0,71	2	2	3	2,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	2	3	2,5 ± 0,71	
	6.2. Langileen artean harreman ona dago	49	1	5	3,57 ± 1,12	25	2	5	4,12 ± 0,93	10	3	5	4,3 ± 0,67	3	1	5	3,67 ± 2,31	2	4	4	4 ± 0	1	2	2	2 ± .	1	5	5	5 ± .	2	2	2	2 ± .	
	6. Totala	51	1	5	3,64 ± 1,13	27	2	5	4,11 ± 1,02	10	3,5	5	4,25 ± 0,59	3	1	5	3,67 ± 3,67	2	4	4,5	4,25 ± 0,35	2	2	3	2,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	2	3	2,5 ± 0,71	
GOCHEZARU	7.1. Kluba aukeratu izana erabaki ona izan da	51	1	5	3,57 ± 1,32	26	3	5	4,46 ± 0,71	10	2	5	4,6 ± 0,97	3	2	5	4 ± 1,73	2	3	5	4 ± 1,41	2	2	4	3 ± 1,41	1	5	5	5 ± .	2	2	4	3 ± 1,41	
	7.2. Konforme nago klubean izena emateagatik	51	1	5	3,51 ± 1,33	26	3	5	4,38 ± 0,8	10	2	5	4,6 ± 0,97	3	1	5	3,67 ± 2,31	2	3	5	4 ± 1,41	2	2	4	3 ± 1,41	1	5	5	5 ± .	2	2	4	3 ± 1,41	
	7.3. Pozik nago klubean jarduerak egiteagatik.	48	1	5	3,88 ± 1,12	27	3	5	4,59 ± 0,69	10	3	5	4,7 ± 0,67	3	1	5	3,67 ± 2,31	2	3	5	4 ± 1,41	2	4	5	4,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	4	5	4,5 ± 0,71	
	7.4. Pozik nago klubean izena emateagatik.	51	1	5	3,43 ± 1,33	26	2	5	4,42 ± 0,9	10	2	5	4,6 ± 0,97	3	1	5	3,67 ± 2,31	2	3	5	4 ± 1,41	2	2	3	2,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	2	3	2,5 ± 0,71	
	7. Totala	51	1	5	3,58 ± 1,22	27	2,75	5	4,48 ± 0,71	10	2,25	5	4,63 ± 0,89	3	1,25	5	3,75 ± 2,17	2	3	5	4 ± 1,41	2	2,75	3,75	3,25 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	2,75	3,75	3,25 ± 0,71	
	ADOS	8.1. Pozik nago jardueraren kalitate/prezio	48	1	5	3,13 ± 1,26	27	2	5	4,15 ± 1,13	10	3	5	4 ± 0,67	3	1	5	3,67 ± 2,31	2	4	4	4 ± 0	2	1	2	1,5 ± 0,71	1	5	5	5 ± .	2	1	2	1,5 ± 0,71

N. parte hartzaile baliagarriak  
bb ± ds. bata bestekoa ± desbideratzea

Min. Minimoa  
Max. Maximoa

ADOS Adostasuna

Hasteko, sekzio bakoitza aztertu da orokorrean harturik. Gimnasia erritmikoan balore altuenak dituen azpi-dimentsioa entrenatzaileak dira, 4,6 batz besteko totalarekin. Gutxien baloratutakoa aldiz, adostasun dimentsioari dagokio 3,13 batz besteko totalarekin. Hokey sekzioaren analisisian gehien baloratutako azpi-dimentsioa entrenatzaileak dira, 4,3 batz besteko totala jaso duena. Gutxien baloratutakoa, materiala izan da, 4,1 batz besteko totalarekin. Futbol sekzioari dagokionez, balore altuena gogobetetasun dimentsioan kokatzen da, 4,63 batz bestekoarekin. Balore baxuena, aldiz, instalazioek jasotzen dute sekzio honetan, 2,89 batz besteko totalarekin. Taekwondoaren kasuan, bi azpi-dimentsio daude altuena den 4,5 batz bestekoarekin: entrenatzaileak eta jarduerak. Balore baxuena, ordea, komunikazioak dauka, 3 batz besteko totala duena. Kick boxing-a aztertuz, 4,7 batz besteko altuena jarduera azpi-dimentsioari dagokio eta baxuena materialari, 2 batz bestekoarekin. Bukatzeko, jiu jitsu eta xakearen azterketa adierazi beharko zen, baina N zutabeari erreparatuz ikus daiteke bien kasuan galdetegi erdia pertsona bakarrik erantzun duela eta, gainerakoa, bi pertsonen baino ez; hortaz, datu horiek ezin dira kontuan hartu. Ondorengo analisisian sekzio bi hauek kontuan hartuko dira bakarrik item guztietan bi erantzule dauden azpi multzoetan.

Oraingoan, azpi-dimentsioak aztertu dira sekzio desberdinen arabera.

Lehenik eta behin, entrenatzaileen azpi dimentsioan, oso balore altuak daudela ikus daiteke. Zazpi sekzioetatik bakarrean jaisten dira 4 inguruko batz bestekotik, beraz, orokorrean nahiko ados egoteko joera adierazten dute. Balore baxuagoak dituen sekzioa kick boxing da, honek adostasuna adierazten du, 3,25 batz besteko totala duelarik.

Gimnasia erritmikoak balore altuenak ditu, guztiak 4,5 eta 4,7 artekoak, beraz, joera guztiz ados egotea da. Sekzio honetan gehien baloratutakoa taldekideak animatzeari dagokion aldagaia da. Hokey-aren kasuan baloreak 4,6 eta 4 artekoak dira, joera nahiko ados eta guztiz ados artean kokatzen delarik. Gehien baloratzen dena entrenatzaileek emandako tratua da, eta gutxienekoa bezeroen interes eta beharretara egokitzea. Futbolari dagokionez, joera nahiko ados egotea da, 4 eta 4,3 arteko baloreak izanik. Gehien baloratutako aldagaia entrenatzaileek emandako tratua da. Taekwondon joera guztiz ados egotea da, baloreak 4,5ekoak direlarik item arteko desberdintasunik gabe. Arte martzialekin jarraituz, kick boxinak, aurretik esan den bezala, balore baxuenak dauzka, desadostasunerantz jotzeko bakarra izanik. Joera hau 2,5-eko batz bestekoa duten bi aldagaietan ageri da, zeintzuek bezeroen interes eta beharretara egokitzea eta parte hartzaileak animatzeari egiten dioten erreferentzia. Kontuan izan behar da sekzio honen bi pertsonen bakarrik hartu dutela parte eta desbideratzea oso altua dela item horietan. Sekzioekin amaitzeko, Xakean nahiko ados egoteko joera dauka 3,5 eta 4 arteko baloreekin. Aldagai batek deitzen du arreta 3,5 batz bestekoa duenak, taldekideak animatzeari dagokiona.

Hari beretik, instalazioak azpi-dimentsioa aztertu da. Totalei erreparatuz gero, balorerik altuena 4,07 da, hokey sekzioari dagokiona. Honen atzetik, 4 batz besteko inguruan, taekwondo, xake

eta gimnasia daude. Azkenik, 3 batz besteko inguruan, futbola eta kick boxingna. Esan daiteke, beraz, bi joera desberdintzen direla: nahiko ados egoteko joera, zeinetan hokey, taekwondo, xake eta gimnasia kokatzen diren eta ados egoteko joera, futbol eta kick boxing sekzioak dutena. Adierazgarria da, gehien baloratutako item-a aldagelen zabaltasuna dela, sekzio guztietan xakean izan ezik. Okerren baloratutako aldagaiak, ordea, instalazioen garbiketa (gimnasia, futbola, kick boxing eta taekwondon) eta aldagelen garbiketari (hockey, futbola eta kick boxing) dagozkie.

Hirugarrenez, materiala azpi-dimentsioa aztertu da. Orokorrean behatuta, xake sekzioko partaideak dute pertzepzio altuena 4,3 batz bestekoarekin; jarraian, Hokey eta gimnasia erritmikoa 4,1 batz bestekoarekin; gero, taekwondo sekzioa 3,7 batekin; honen atzetik, futboleko sekzioa 3,2 datuarekin eta, azkenik, kick boxing 2 batekin. Ikusi daiteke, beraz, aipatutako lehenengo lau sekzioek nahiko ados egoteko joera daukatela. Futboleko sekzioak, aldiz, ados egoteko joera du eta kick boxing-eko sekzioak, ados ez egoteko joera du.

